

barnek diseinua
essei

belen pardo
jaione castañeda

proiektuak, erreformak eta
lan-zuzenketa etxebizitza,
bulego zein merkataritza-
lokaletan.
erakusleihogintza.

komentukua 1. ataria 1.a
48260 Ermua. Bizkaia
tel. 943. 17 68 45 - 17 43 79



Galegoa: Ermuko beste erdera bat



- LENGOAIA MUSIKALA
- PIANOA
- AKORDEOIA
- FLAUTA
- KLARINETEA
- SAXOFOIA
- TRONPETA
- TRIKITIXA
- KOROA

ezkontzetan kantatzen dugu

Ezaguna da Ermua oraindik herri erdalduna dela, baina erdera hitza aipatzen dugunean, gehienetan gaztelera etortzen zaigu burura; izan ere, gaztelera da Ermuko hizkuntza nagusia, baina ez erdera bakarra, hortxe baitugu galegoa.

Ermuko Galiziako Zentruaren datuak kontutan hartuta, gure herrian 7.000 lagun inguru dira Galizian jaioak edo jatorri galiziarra dutenak. Kopuru benetan garrantzitsua da Ermua bezalako herri barentzat. Honek berriz, ez du esan

nahi 7.000 biztanle horien hizkuntza galegoa denik. Hemen bi talde bereiztu behar dira: alde batetik Galizian jaioak direnak eta beste alde batetik jatorri galiziarra dutenak.

Galizian jaioak direnen artean galegoak oraindik bizirik jarraitzen du, nahiko osasun maila onean, baina jakina denez, multzo hori gero eta murriztagoa denez, osasun maila horrek ez du luze iraungo.

Jatorri galiziarra duten baina hemen jaioak diren artean berriz, galiziera makal dabil. Nahiz eta mul-

Parquets VIVIAN
haroztegi orokorra

—EZARRERA—

ATEAK - OHOLTZA - PARKET - KORTXO eta abar
HAUTSIK GABEKO LIXATZE ETA BERNIZATZEA

Paciano Arosa, 27 behe ezk. TLF 20 81 42 EIBAR
17 33 88 ERMUA



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

Erdikokale, 19
Tfno. (943) 17 22 43
ERMUA (Bizkaia)

"MENDIOLA"

Jatetxea

EGUNEKO MENUA
ETA KARTA ERARA

tzo honetako hainbat gazteren etxeetan galegoa hizkuntza nagusia izan, haien eguneroko hizkuntza gaztele-
ra dute. Nahiko larria da baita ere, Galiziako gurasoak dituzten eta Galiziako Zentruaren ekitaldietan parte hartzen duten hainbat gaztek, orohar, gaztelera egitea euren artean. Galizieraz egiten duten gazteak %10 baino ez dira, beti ere aipatu zentruaren informazioaren arabera.

Datuok ikusita, eta epe luzera begira, nahiko nekeza izango da galiziar hizkuntzaren iraupena Ermuan. Baina ez bertan bakarrik, RAGek (Real Academia Galega) Galiziako Xunta-rekin egindako azken "Galiziako Soziolinguistikako Mapa"n argi eta garbi ikus daitekeelako galegoaren erabilpena azken 50 urteetan %47,4 jaitsi dela, eta gazte-
en artean inoiz baino gaztelerazko elebakar gehiago dagoela. Hausnarketarako datu kezgarriak beraz.

Bestalde, aipatzekoa da Galiziako hizkuntzak daukan beste arazo bat, berebiziko garrantzia duena: ortografia. 1982. urtean Alianza Popular-eko Xuntak sinatutako de-



Galiziako Baroña herri zeltiarraren -"castro"-aren-
aztarnak.

kretu baten bidez gaur egungo galego ofizialaren ortografia gaztelaniaztatua ezarri zen. Baina historiari gainbegiradaxo bat emanez ikus daitekeenez, galegoaren grafia gaur egungo portuguesarena izan da betidanik, Erdi Aroan Galizia Gaztelaren orbitaren barruan sartzearen ondorioz hasi zen gaztelaniaztapen prozesura heldu arte, gaur

egun ere martxan dabilena. Hori dela-eta, hainbat dira Galizan galego historikoaren aldeko lana egiten ari direnak, horien artean MDL (Movimento Defesa da Língua).

Hauek datuok ikusita, galegoak, euskarak bezala, etorkizun latza dauka bere iraupena ziurtatu arte, itxaropenez beterik espero duguna.

Rober Cano

opariak
arropa informala


ELCAINE

Karabixa 1. zbk. behea

DISKAK
nikiak
bideoak
MUSIKA-LIBURUTEGIA
eta abar...



Eguzki Lore
LORADENDA



Goienkale z/g

Telef. 943 / 17 28 88 - 48260 ERMUA (Bizkaia)

lore-konposaketa

SIRIMIRI TABERNA

Pintxo eta bokatak

Erdiko kale, 11



TXINDURRI TALDEA

Tokian tokiko